

Sortze ideia eta

Negozio ideia

“Juan Torres”

berritzeileen lehiaketa

“JUAN TORRES” 7. SORTZE IDEIA ETA NEGOZIO IDEIA
BERRITZAILEEN LEHIAKETA

berritu

1	HITZAURREA	3
2	LEHIAKETAREN MODALITATEAK	3
2.1	IDEIA BERRITZAILEAK.....	3
2.1.1	Norentzat:	3
2.1.2	Proposamenen edukia.....	3
2.1.3	Sariak:	4
2.1.4	Eskakizunak	4
2.1.5	Aukaraketa irizpideak.....	5
2.2	NEGOZIO IDEIA BERRITZAILEAK.....	5
2.2.1	Norentzat:	5
2.2.2	Proposamenen edukia.....	5
2.2.3	Sariak.....	6
2.2.4	Eskakizunak	6
2.2.5	Aukaraketa irizpideak	7
3	LANAK AURKEZTEKO ETA AURRETIK IZENA EMATEKO EPEA ETA LEKUA.....	7
3.1	IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA:	7
3.2	PROPOSAMENEN AURKEZPENA:.....	7
3.3	BALORAZIO BATZORDEA.....	8
3.4	JABETZA INTELEKTUALA.....	8
3.5	EBAZPENA	8
4	LABURPEN KOADROA.....	9
5	PROIEKTUAREN FITXA.....	10

1 HITZAURREA

Ezagutzan oinarrituriko egungo testuinguru sozioekonomikoan, gizarte ehun-sortzailea sortzea -ezagutza berria sortuko duena – garrantzi handiko balio erantsia da sormen hori duten pertsonen eta komunitateen garapenerako. Arazoei konponbide anitzak emateko giza-gaitasuna da sormena. Gizaki guztiok berez, jaiotzatik, daukagu sortzeko gaitasuna, sormena ez bait da bakar batzuen dohaina: musikariena, pintoreena, idazleena, artistena, Sormena garatuz, arrazoitzeko, gauzak zalantzan jartzeko eta eguneroko arazoei konponbide berritzaileak bilatzeko ahalmena geureganatzen dugu gizakiok.

Gazteen artean sormenezko pentsaera sustatzea da, hain zuzen, lehiaketaren modalitate honen helburua. Horrela, gure gizartearen anitza izango da, eta ezagutza-gune berriak sortuko ditu etengabe, halaxe gertatzen bait da gizarte dinamiko aurreratu orotan. Sormenak hazten eta trebatzen laguntzen die gazteei. Izan ere, sormena landuz, beraien kasa pentsatzen ikasten dute, besteen pentsamenduak berraienganatu soilik egin gabe. Gure lehiaketak norbere pentsamendua sustatzea du helburu.

Ermuko Udalaren Toki Garapeneko Alorrak **SORTZE IDEIA ETA NEGOZIO IDEIA BERRITZAILEEN JUAN TORRES LEHIAKETAN** parte hartzeko dei egiten du.

2 LEHIAKETAREN MODALITATEAK

2.1 Ideia berritzaileak

2.1.1 Norentzat:

- (A) Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta erdi mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat, HLPIak barne, ikasketak burutzen dituzten zentruaren eskutik etortzeko obligazioarekin.
- (B) Gutxienez 3 pertsonen osatutako taldeetan, euren kabuz proposamenak aurkeztu dituzten 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat.

2.1.2 Proposamenen edukia

Lehendik dauden objektuentzat erabilera edo aplikazio berri bat proposatuko da, edo bestela, produktu edo prozesu berriak aurkeztuko dira, berdin da merkatuan nolako potentzialtasuna duten.

Gaur egun, produktuen diseinua funtsezko baliabide bihurtu da enpresa lehiakortasuna sustatzeko orduan. Teknika hauen bidez produktu eraginkorragoak, erakargarriagoak eta baita politagoak ere lortu daitezke, horrela merkatua handitu dezaketelarik. Zentzu honetan, gure helburua gazteei etorkizunean lan aukera berriak zabaltzeko aukera emango dizkien diseinuari loturiko sormen ideiak sustatzea da. Horrela, aurtengo edizioan aurkeztutako ideiak gurpilen gainean irristatzen diren objektuen inguruko diseinu berriak planteatzea bereiziki baloratuko da (autoak, motoak, kamioiak, patineteak, bizikletak eta abar).

Sormena sortzea da helburua, ez hainbeste merkatu-aukera. Era honetan, "objektu birakarien" diseinu berriak aurkezteko aukera izateaz gain, beste ideia batzuk ere planteatu ahal izango dira, hala nola; hondakin materialak dekoraziorako, erabilera baliagarriak ontzientzat, sormenezko diseinuak, erabilera berriak makinentzat, garraioak berdiseinatzea, kirolak, etab.

2.1.3 Sariak:

A TALDEA	12 eta 16 urte bitarteko gazteak (biak barne), gutxienez hiru pertsonen osatutako taldeetan	B TALDEA	17 eta 18 urte bitarteko gazteak (biak barne), gutxienez hiru pertsonen osatutako taldeetan
500€tako 2 sari erosketa txeketan, ikasketa zentruaren eskutik etorri gero ikasketa zentruak 250€ eskuratzeko aukera dauka	DBHko ikasleak, bere adina zein den kontutan hartu gabe, ikasketa zentruaren eskutik datozen heinean	500€tako 2 sari erosketa txeketan, ikasketa zentruaren eskutik etorri gero ikasketa zentruak 250€ eskuratzeko aukera dauka	Erdi mailako zikloetako eta HLPIetako ikasleak, bere adina zein den kontutan hartu gabe, ikasketa zentruaren eskutik datozen heinean

***Sariak 2.1.5 puntuan zehaztutako irizpideak jarraituz emango dira, proposamenak libreki edo prestakuntza zentru baten eskutik aurkeztu diren kontutan eduki gabe.**

2.1.4 Eskakizunak

- Orokorrean, proposamenak taldeka aurkeztu beharko dira, inoiz ez bakarka. Beraien kontura proposamenak aurkeztu dituzten gazteek gutxienez 3 pertsonen osatutako taldeetan egin beharko dute.
- Prestakuntza zentro baten eskutik aurkeztu diren proposamenekin batera oinarriari erantsitako dokumentua aurkeztu beharko da prestakuntza zentroko irakasle batek sinatuta. Kasu

honetan, saria 250 €tan gehituko da eta Zentroak berak erabakiko du diru horri emango dion erabilera.

- c) Saritutako proposamena adin txikikoek aurkezten dutenean, sari banaketara, taldearen arduraduna izango den, heldu baten eskutik agertu beharko dira.
- d) Saritutako proposamena prestakuntza zentro baten eskutik datorrenean, zentro horretako arduradun bat agertu beharko da sari banaketara.
- e) Aurkezten diren lan guztiak originalak izan beharko dute.

2.1.5 Aukaraketa irizpideak

Balorazio Batzordeak honako aukeraketa-irizpide hauek jarraituko ditu:

- Originaltasuna, sormena eta berrikuntza (40 puntu).
- Proposamenean jasotako ideia zenbateraino garatu den (15 puntu).
- Aurkeztutako euskarria ongi ikusten den (15 puntu).
- Gorpildun objektu baten inguruko diseinua izatea (10 puntu).
- Proposamenaren bideragarritasuna. (10 puntu).
- Proposamenaren kalitatea (10 puntu).

Aurkeztutako proposamen guztiak publikoki ikusgai jarriko dira 2012ko Toki Garapenko Astearen zehar. Horretarako gune bat eta beharrezkoak diren euskarri eta bitartekoak prestatuko dira.

2.2 Negozio ideia berritzaileak

2.2.1 Norentzat:

- Goi mailako heziketa-zikloetako eta unibertsitate-graduetako ikasleentzat.
- Beraien kontura proposamenak aurkezten dituzten 22 urtetik beherakoentzat.

2.2.2 Proposamenen edukia

Gure inguruko ehun ekonomikoari erantsitako balioa eskeintzen dioten negozio ideia berritzaileak hartuko ditu kontuan lehiaketa modalitate honek. Etorkizunean sortuko diren eskakizun sozial eta

ekonomikoei egokituko zaizkien eta sorkuntzan eta ezagutzan oinarritutako ideiak izan beharko dira aurkeztutakoak.

Lehiaketa modalitate hau enpresa bat sortzeko interesa izanik, negozio plana garatu gabe daukaten edo garatuta edukita enpresa martxan jartzeko beharrezko kondizioak betetzen ez dituzten pertsonen zuzenduta dago.

2.2.3 Sariak

500€tako 2 sari erosketa txeketan, ikasketa zentruaren eskutik etorritako gero ikasketa zentruak 250€ eskuratzeko aukera dauka	Beraien kontura proposamenak aurkezten dituzten 19 eta 22 urte bitarteko gazteak (biak barne)
	Goi mailako heziketa-zikloetako eta unibertsitate-graduetako ikasleak, beraien adina kontutan hartu gabe eta beti ere prestakuntza zentruaren eskutik datozenean

2.2.4 Eskakizunak

- Prestakuntza zentro baten eskutik aurkezten diren proposamenekin batera oinarri erantsitako dokumentua aurkeztu beharko da prestakuntza zentroko irakasle batek sinatuta. Kasu honetan, saria 250 €tan gehituko da eta Zentroak berak erabakiko du diru horri emango dion erabilera.
- Saritutako proposamena prestakuntza zentro baten eskutik datorrenean, zentro horretako arduradun bat agertu beharko da sari banaketara.
- Aurkezten diren lan guztiak originalak izan beharko dute.

Aurkeztutako proposamen guztiak publikoki ikusgai jarriko dira 2012ko Toki Garapenko Asteaz zehar. Horretarako gune bat eta beharrezkoak diren euskarri eta bitartekoak prestatuko dira.

2.2.5 Aukeraketa irizpideak

Balorazio Batzordeak honako aukeraketa-irizpide hauek jarraituko ditu:

- Originaltasuna, sormena eta berrikuntza (40 puntu).
- Proposamenean jasotako ideia zenbateraino garatu den (25 puntu).
- Proposamenaren aurkezpena eta honen kalitatea (20 puntu)
- Proposamenaren kalitatea (15 puntu).

3 LANAK AURKEZTEKO ETA AURRETIK IZENA EMATEKO EPEA ETA LEKUA

Lanak aurkezteko prozesuak bi fase ditu: aurre izen ematea eta aurkezpena.

3.1 Izena aurretik emateko epea:

2012ko otsailaren 10 baino lehen, Ermuko Udaletxeko (Toki Garapeneko Alorra) Web orrialdearen bidez.

3.2 Proposamenen aurkezpena:

Proposamen horien aurkezpena 2012ko martxoaren 1etik 29era izango da Izarra Enpresa Gunean 9:00etatik 19:00etara. Aurkezpen desagokia dela eta zuzenketak behar izanez gero, gehienez 5 lanegun gehigarri egongo dira zuzenketa horiek egiteko. Toki Garapeneko Alorraren helburua aurkeztutako lanei ahalik eta zabalkunderik handiena ematea da, horregatik, maketa guztiak grabatuko ditugu, Ermuko Udalean komunikazio-euskarritzat erabiltzen den edozein espazio eta baliabidetan erakusgai jartzeko.

Proposamenetan behar diren datu guztiak adieraziko dira, Udala sustatzaileekin harremanetan jar dadin.

Udaletxearen arduragabekeria kasuetan izan ezik, honek ez ditu bere gain hartuko aurkeztutako proposamenek lekualdatzean eta biltegiatzean jasan ditzaketen kalteak,

Sariak banatzeko ekitaldian, saritua ordezkatzeko duen pertsonaren faltagatik sariren bat ezin bada eman, sarituaren ordezkariak edo sarituak ikasketak burutzen dituen zentruak 15 eguneko epea dute Udaletxearekin kontaktuan jartzeko eta saria jasotzeko.

3.3 Balorazio batzordea

Ebaluazio Batzordea Udaletxeko teknikoek osatuko dute, hauek proposamenak ezarritako irizpideak eta oinarriak kontutan hartuta baloratuko dituzte.

3.4 Jabetza intelektual

Proiektuak eta proiektuen jabetza intelektual sustatzaileena izango da. Lehiaketaren antolatzaileek ezingo dira horiez jabetu, eta 2012ko Toki Garapeneko Asteko erakusketarako baizik ez dituzte erabiliko.

3.5 Ebazpena

Epaimahaikoen erabakia jendaurreko ekitaldian emango zaie ezagutzera partaideei, Izarra 2 Enpresa Gunean. Horrez gain hedabideetan ere argitaratuko da.

Epaimahaiak sari guztiak edo batzuk eman gabe utzi ahal izango ditu proiektu kopuru nahikoa aurkezten ez bada edo aurkeztutakoak behar beste kalitaterik ez badute. Sariren bat eman gabe geratzen bada epaimahaikoek bi aukera izango dituzte: beste deialdi publiko bat egitea edo kasuan kasuko zenbatekoa beste kategoria bati ematea. Bestalde, saririk gabe geratu arren, kalitate nabarmena izan duten lanen ohorezko aipamena egin daiteke.

Epaimahaikoen erabakia argitaratu eta astebetera egileak lanak jasotzera joan ahal izango dira proposamena aurkeztu zuten tokira. Hilabeteko epea izango dute horretarako, zeren epe hori igarota antolatzaileek ez baitute inolako erantzukizunik izango.

Epaimahaiak lehiaketa honen oinarriak interpretatu eta osatzeko ahalmena izango du. Bere erabakiak behin betikoak izango dira eta ezingo da kontrako errekursorik aurkeztu. Lehiaketan parte hartzeko oinarri hauek eta oinarrien ondoriozko eskubide eta betebeharrak bete-betean onartu behar dira, ezinbestez.

4 LABURPEN KOADROA

ILDOA: IDEIA BERRITZAILEAK				ILDOA: NEGOZIO IDEIA BERRITZAILEAK	
Izena aurretik emateko epea: 2012ko otsailaren 10 baino lehen (Erantsitako orria edo Udaletxeko Web orrialdean)					
Aurkezpena: martxoaren 1etik 29era					
Edukia: produktu berriak, diseinu berriak, etab. Edozein formatutan.				Edukia: gure inguruko ehun ekonomikoari balio erantsi bat eskeintzen dieten negozio ideia berritzaileak.	
A TALDEA 500€tako 2 sari erosceta txeketan, ikasketa zentruaren eskutik etorri gero ikasketa zentruak 250€ eskuratzeko aukera dauka.	12 eta 16 urte bitarteko gazteak (biak barne), gutxienez hiru pertsonen osatutako taldeetan	B TALDEA 500€tako 2 sari erosceta txeketan, ikasketa zentruaren eskutik etorri gero ikasketa zentruak 250€ eskuratzeko aukera dauka	17 eta 18 urte bitarteko gazteak (biak barne), gutxienez hiru pertsonen osatutako taldeetan	500€tako 2 sari erosceta txeketan, ikasketa zentruaren eskutik etorri gero ikasketa zentruak 250€ eskuratzeko aukera dauka	Beraien kabuz proposamenak aurkezten dituzten 19 eta 22 urte bitarteko gazteak (biak barne).
	DBHko ikasleak, bere adina zein den kontutan hartu gabe, ikasketa zentruaren eskutik datozen einean.		Erdi mailako zikloetako eta HLPletako ikasleak, bere adina zein den kontutan hartu gabe, ikasketa zentruaren eskutik datozen einean		Goi mailako zikloetako eta unibertsitateko graduatiko ikasleak, bere adina zein den kontutan hartu gabe, ikasketa zentruaren eskutik datozen einean

5 PROIEKTUAREN FITXA

KONTAKTURAKO PERTSONAREN DATUAK (TALDEKO BAT):

- Izen-abizenak:
- Adina:
- Telefonoa:
- Posta elektronikoa:
- (Prestakuntza zentru baten eskutik badator) Zentruaren izena:
- Ikasturtea:

PROIEKTUAREN IZENBURUA:

AURKEZTEN DEN PROIEKTUAREN LABURPENA:

2. ERANSKINA: PRESTAKUNTZA ZENTRUAREN PARTE-HARTZEA

Honakoaren bitartez _____ prestakuntza-
zentroak adierazten du _____ proiektua
Enpresa-idea eta -proiektuen “Juan Torres” 6. Lehiaketara aurkeztu dela, zentro hau
jakinaren gainean eta ados dagoelarik.

Eta horrela ager dadin honako agiri hau sinatu dut

Izen-abizenak:

Kargua:

Zigilua eta sinadura